


Gure bezeroa segmentatzen baldin badugu, hainbat irizpide desberdinetan banatuko genuke. Alde batetik, haurren adinari erreparatuz 0-10 urte bitartekoen haurrentzat izango litzateke. Familia hauetako gurasoek, lanaldi oso okupatua edo denbora dutenentzat da. Baina, beste alde batetik, aisialdiaz gozatzeko aukera ere badago lagunen artean arituz. Guzti hauen helburu nagusia gure proiektura joatea disfrutatu ahal izateko eta elkarrekintza sustatzeko. Gainera, kalitatezko aisialdiko denboraz gozatzeko baita ere. Hau da, familia haien haurren kalitatezko denbora pasatzea nahi dutenak edota egun bereziak ospatzeko, hauek izango liriateke profil ohikoenak.

Bestalde, gure balioan zentratuz, euskarari garrantzi handia emango diogu haurrak txikiak direnetik euskara bultzatu nahi dugulako. Durangok emandako datu batzuetan ikusi dezakegu biztanleriaren %22,7ak euskaraz hitz egiten duela eta %48,9 ak hizkuntzaren inguruan ezagutza daukala, horregatik, txikitatik euskara sustatu nahi dugu datu hauek gora egin dezaten.

Durango 2017: datu nagusien laburpena



DURANGOKO EUSKARAREN DATUAK

Beste balio garrantzitsu bat kontuan izan duguna gurasoen denbora libre da, hau da, guraso batzuek lan kontuagatik eta askotan ez daukatela haurrarekin egoteko denborarik izaten, gurekin utzi ditzakete haurra goizean zein arratsaldean, beraien konfiantza gudan ezarriz. Baina beste kasu batzuetan guraso batzuek kalitatezko denbora pasa nahi dute berain seme-alabekin eta horretarako ere prest gaude.

GURASOEN DENBORA ALBISTEA